

157/2021 Foru Agindua, ekainaren 15ekoa, Eskubide Sozialetako kontseilariak emana, 204/2020 Foru Aginduaren bidez onartutako Eskubide Sozialetako Departamentuaren Hizkuntza Plana aldatzen duena, ekainaren 15ekoa, Eskubide Sozialetako Kontseilariarena.

103/2017 Foru Dekretuak, azaroaren 15ekoak, Nafarroako administrazio publikoetan, bere erakunde autonomoetan eta menpeko zuzenbide publikoko erakundeetan euskararen erabilera arautzen duenak, bere 6. artikuluan, hizkuntza plangintzari buruzkoan, xedatzen du Nafarroako Foru Erkidegoko Administrazioko departamentuek beren planak egingo dituztela 3. artikuluan aurreikusitako helburuak lortzeko, eta plan horien gutxieneko edukia zehazten du.

Planak ezarritako aldiak garatu beharko diren helburuak zehazten ditu. Horietako bat da lanpostu jakin batzuei hizkuntza eskakizuna ezartzea.

Departamentuko unitateetako batean lehentasunezkoztat jotzen diren lanpostuetako baten ordezkari bat aukeratu dela ikusi ondoren, bidezkoa da hasierako planean Sustapen eta Eraldaketa Digitalaren Zerbitzuan lehentasunezkoztat jotzen diren unitateetako bat aldatzea.

Proposamenarekin bat etorriz, Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legeak eta Eskubide Sozialen Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 30eko 268/2019 Foru Dekretuak ematen dizkidan ahalmenak erabiliz,

AGINTZEN DUT

1.º 2020-2022 urteetarako, biak barne, Eskubide Sozialen Departamentuko Hizkuntza Plana aldatzea, 204/2020 Foru Aginduaren bidez, ekainaren 15ean, Eskubide Sozialetako Kontseilariak onartua, hizkuntza nahitaezotasuna ezartzeko lehentasuna duen lanpostuetako bat ordeztuz, 2.3 puntuan, ezartzen zuenean:

Errealitate Sozialaren Behatokiaren eta Gizarte Politiken Plangintzaren eta Ebaluazioaren Zuzendaritza Nagusia

- Sustapen eta Eraldaketa Digitalaren Zerbitzua
 - o Modernizazio eta Dibulgazio atala

Ezarri behar da:

Errealitate Sozialaren Behatokiaren eta Gizarte Politiken Plangintzaren eta Ebaluazioaren Zuzendaritza Nagusia

- Sustapen eta Eraldaketa Digitalaren Zerbitzua
 - o Sistemen Kudeaketarako atala

2.º Plan hau Gobernu Irekiko atarian argitaratzea, ezagutzera emateko.

3.º Foru Agindu hau eta bere eranskina Euskarabidea – Euskararen Nafar Institutura, Errealitate Sozialaren Behatokiaren eta Gizarte Politiken Plangintzaren eta Ebaluazioaren Zuzendari Nagusiari, Zerbitzuaren zuzendariari eta Eskubide Sozialen Departamentuko Idazkaritza Nagusira helaraztea, dagozkion ondorioetarako.

Iruña, 2021eko ekainaren 15ean.

ESKUBIDE SOZIALEN KONTSEILARIA

Mª Carmen Maeztu Villafranca